

TURISMOA

COVID-19 GARAIAN

EREDUA ZALANTZAN JARTZEKO UNEA?

Turismoaren industria ahalguztiduna kolpetik gelditu da. Nork esango zuen beste inork ezin zuena birus mikroskopiko batek lortuko zuela? Aurrera zein bidetatik egin eztabaidatzeko une aproposa sortu da inondik ere. Aurrez aurre bi indar: pandemia aurreko “normaltasuna” bultzatuko duten sektoreak batetik; desazkundea aldarrikatuz turismo-eredua aldatu nahi dutenak bestetik. Eta bitarte honetan, uda ate joka.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA  DANI BLANCO



Oraingoan birusa izan da, bihar sumendia izan daiteke, eta hor dago beti klima aldaketa –dio Pedro Bravo idazleak *El País* egunkarian–. Etorkezunari begiratzeko modurik onena, zuhurtziaz, orainaldiari begiratzea da. Sistemaren errore izugarria ikus dezakegu konfinamendutik, eta ziurrenik turismoan islatzen da ongien. Sektore boteretsua –munduko laugarrena garrantzi aldetik– eta transbertsala, globalizazioaren enbaxadorea, kapitalen kontzentrazioaren eta higiezinaren negozioaren internazionalizazioaren konplizea, *gig* ekonomiaren aitzindaria, prekarietateak eutsitako sektorea, oso kutsa-



garria eta erabat ikuspegi laburrekoa". Turismoari buruzko deskribapen zorrotza irakurgai *Akabo bidaiak kapitxosoak* artikuluan.

Munduko leku askotan bezala, Euskal Herrian agintariek turismoaren alde egindako apustu politikoak ondorio latzak ekarri ditu ezustean harrapatu gaituen pandemia iritsi denean. Orain arte azaleratzen ari ziren arazo sozial ugari –gentrifikazioa, espazio publikoaren masifikazioa, auzoko komertzioen desagertzea, euskararen azpiratzea, prekarietatea, geroz eta hondakin gehiago

sortzea...–, turismoarekin loturiko milaka lanposturen galera gehitu zaie orain. Izan tabernetako zerbitzariak edota etxebizitza turistikoak garbitzen dituzten langileak, milaka pertsonaren etorkizuna airean, kezka eta ziurgabetasuna da nagusi.

SARRASKI TURISTIKOA

COVID-19ak sektore ekonomiko askotan kalte nabarmenak eragin baditu ere, zailentzat ez da turismoarena gogorren kolpatu duenetako bat dela eta ederki kostako zaiola burua altxatzea. Ondo-

rengo datu honek argi erakusten du tamaina: Munduko herrialdeen %100ak izurriagatik bidaiatzeko debekuak ezarri ditu.

Horrez gain, European hegaldien %90 bertan behera geratu da azken bi hilabeteetan, eta munduko hegazkin konpainia gehienak maiatzaren amaierarako porrot egitear direla iragarri zuen *Financial Times* egunkariak martxoan. Gehienak gaur egun estatuen erreskatea eskatzen –eta jasotzen– ari dira, eta da-goeneko bost konpainia itxi dituzte betiko: Erresuma Batuko Flybe martxoan,

AEBetako Trans States Airlines eta Compass Airlines ere bai, Virgin Australia apirilean, eta oraingoz erortzen azkena Kolonbiako Avianca izan da, maiatzean.

Donostiara egin zuen bisitan agintarien alfonbra gorria eta herritar ugariaren protestak aurkitu zituen Munduko Turismo Erakundeak (UNWTO ingelesezko sigletan) komunikatu ugari argitaratu ditu azken aldian, gobernuei turismoaren sektorea finantzatzeko dei eginez. Maiatzaren 7an argitaratu zuen oharrean sektore globalizatuari buruz bere estimazioak plazaratu zituen: *Nazioarteko bidaien kopurua %60-80 eror liteke 2020an*. Gogoratu UNWTO ez dela sektorean interesik ez duen eragile independentea, parte inplikatu da, baina jendarteratu nahi izan dituzten ondorioek agerian uzten dute sektorean dagoen kezka: Munduan 850-1.100 milioi nazioarteko turista gutxiago izango dira aurten, turismoaren jarduerak sortuko lituzkeen 910.000 milioi eta 1.2 bilioi dolar arteko galera, eta 100-120 milioi lanpostu arriskuan.

Gurera etorrita, 2019. urtean EAEko aireportuek %8 eta %23 artean egin zutela gora irakur daiteke ETBren webgunean, eta aireportu ugari handitze planak egiten hasiak zirela. Euskal Herrian bidaiari gehien mugitzen duen Loiu aireportua handitzeko planak mahai gainean zeudela zioten otsailean *Deian*, eta horrela, urtean 13 milioi bidaiari hartzeko aukera izango lukeela (2019an 5,9 milioi izan ziren). Horretarako terminala handitu eta beste txikiago bat eraiki beharko lukete, hegazkinak aparkatzeko beste gune batekin batera. Aireportua kudeatzen duen AENak jartzen zuen baldintza bakarra, azken urteetako hazkundearekin jarraitzea zen. Agerikoa da aurten ez dela gertatuko, ikusi beharko da aireportua handitzeko interesa zute-nek atzera egiten duten.

Turismoarekin loturiko beste garraio-bide bat gurutzaontziena da –ikerketu ugariaren arabera, munduko garraio-biderik kutsagarriena–. Eusko Jaurlaritzak duela hiru urte Getxon terminal berezia ireki zuen kruzistentzat. 2020. urtea “inoizko urterik onena izateko bidean zen”, *Deia* egunkarian irakur dezakegunez. 65 eskala dagoeneko hitzartuta zizuten, portuaren historiako kopururik handiena, eta “Euskadira maila ekonomiko altuko 80.000 turista ekarriko zizuten”. Denboraldia martxoaren 26an zen irekitzekoa, Hego Euskal Herrian alarma egoera dekretatu berria zen or-

dea, eta orain arteko gurutzaontzi guttiak bertan behera utzi behar izan zizuten. Getxoko portua zenbait ontziren aparkaleku gisa baliatzen ari dira egun.

Etxebizitza turistikoak alokatzeko Airbnb plataformaren eskutik egotera kalibratzen laguntzeko beste datu bat. Enpresak jakinarazi du maiatzean 1.900 langile kaleratu dituela, nominan dituenen laurdena. Hala ere, argazki osoa egiteko, kontutan hartu behar da bere enplegatu gisa hartzen ez dituen, baina funtsean ia eskubiderik gabe Airbnb eta antzeko plataformentzat lan egiten duten 7 milioi *anfitrioi* edo etxejabe ere lan hori gabe geratu direla. Aldi berean, alokairu turistikora bideratutako etxebizitza asko pixkana alokairuen zirkuitu lokalera itzultzen ari dira, diru gutxiago baina denboran iraunkorragoa izango den jarduera ziurtatuko duelakoan etxejabe askok. Adibidez, Bartzelonan pisu turistikoek %40 bizi-tegi-alokairura itzuli da APARTUR patronalak eskainitako datuaren arabera. Euskal Herriko herri eta hirietan ere joera bera gertatzen ariteza ez litzateke harrizkoa, nahiz eta ez duen inork gaiari buruzko daturik plazaratu.

Munduko
herrialdeen
%100ak izurriagatik
bidaiatzeko
debekuak ezarri ditu

Ipar Euskal Herriko kostaldean harrizkoak dira turistifikazio prozesua indar betez sartu zela, horren ondorioak begibistan utziz, batez ere Lapurdin. Hego Euskal Herria bide beretik zerman klase politikoa, batez ere, 2008ko krisi ekonomikoa eta ETaren borroka armatuaren amaierak sortutako testuingurua indar betez baliatuz. 2011tik aurrera urtez urte bisitari kopurua errekorrak hausten joan da –diru sarrerena ere bai–, eta berriki ikusi dugunez, pixkana gora zihoan oposizio sozialaren aurrean, politika hauen bultzatzaileek *turismo jasangarria* gisako kontzeptuak erabiltzen hasi behar izan dute ere, nahiz eta hartutako erabakiak norabide bera izan beti: geroz eta turista gehiago ja-

sotzea, noizbait burbuila lehertu arte. Eta COVID-19ak lehertu ote du? Ikusiko dugu. Argi dagoena da nazioarteko turisten kopuruak lehen aldiz hamar urtean ez duela errekor berririk ezarriko gurean, eta industria honen parte diren enpresek galera handiak izango dituztela.


Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, 131 milioi euroko galerak izan ditu sektoreak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta 3.745 lanpostu galdu dira hotel, pensio, ostatu, landetxe, kanpin, kongresuen antolaketa, bidaia-agentzia eta gida turistikoaren esparruan. Ipar Euskal Herrian, Euskal Elkargoaren datuen arabera, lanpostuen %10 da turismoarekin lotua, 9.000 lanpostu. Hiru administrazioek diru laguntzak prestatuzte sektore hau bultzatzeko. Nafarroako Gobernuak ez du datu zehatzik eman, baina sektorearekin neurriak adosten ari dira ondorengo bi urteetan estrategia bateratua izateko. Bitartean, Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarteak idazkariaren hitzetan, Espainiako gobernaren konfinamendu arintze plana “adar-jotzea” izaten ari da eta Nafarroako Ostalaritza Enpresa Txikien Elkarteak presidentek adierazi duenez, “egoera dramatiko da, bai itxieraren garaiagatik, bai jardueraren hasiera mailakatu eta mugatuagatik”.

MUGARIK GABEKO HAZKUNDEA?

“Nik ez dut lehengo normaltasuna itzuli nahi. Normaltasun zaharra nahi dut, 2000. urtera arte bizi izan genuena, auzoko komertzioekin, elkar ezagutzen dugun auzokideekin”, dio Twitterren Malayerba erabiltzaile kataluniarrak ondorengo txio honi erantzunez: “Auzo Gotikoan bizi naiz eta flipatzen ari naiz. Lehen aldiz kalean lasaitasunez ibil naiteke, giririk gabe, mozkorrik gabe. Auzokideok elkar ezagutzen hasi gara eta estresa murriztu egin da. Berrero arnas hartzen hastea bezala da, izan ere, presio turistikoa itogarri izatera hel daiteke”.

Ez dira gutxi turismoaren esparruan norabide aldaketa eskatzen ari diren aholkutsak. Ezkerreko alderdi politiko eta sindikatuek gain, geroz eta gehiago dira turistifikazio prozesuei aurre egin asmoz sortutako kolektiboak. Duela bi urtetik SET sarean koordinatzen dira Europa Hegoaldeko hiri eta eskualde ugari. Oraingoz ondorengo 25ak dira, eta pandemia garaian telekonferentziaz bilerak egiten ari dira: Bartzelona, Bergamo, Bolonia, Donostia, Eivissa, Erroma, Florentzia, Genova, Girona, Iruñea, Kanariar Uharteak,

Nazioarteko hegaldien jomugak 2019 eta 2020ko lehen lauhilekoan (aldaketa %-tan)



Kordoba, Lisboa, Madril, Malaga, Malta, Napoli, Palermo, Palma, Porto, Rimini, Sevilla, Tarragona, Valentzia eta Venezia. Esperientziak partekatu eta ekintzarako estrategiak adosten dituzte bestelako turismo eredua bultzatzen asmoz. Desazkunde turistikoak da beren aldarrikapen nagusia, turismoa gizarteko sektore anitzetan eragiten ari den kaltean arreta jarritz.

Beste guztiak bezala, ekintzaile hauek ere ezustean harrapatu dituzte koronabirusaren kolpeak, eta bat-batean hotel eta pisu turistikoaren ateak nola ixten ziren ikusi dute, herri eta hiriak turismoaren zerbitzura antolatzeak dakartzen arriskuak mahai gainean aurkituz. Donostiako BiziLagunEkin plataformatik ARGIAri adierazi diote gauzak aldatzeko aukera orain ikusten dutela. "Noiz bestela?"

"COVID-19ari lotutako larrialdian pre-sazkoa da paradigma aldaketa, oinarritzko eskubide sozialen izenean eta herri-sektore zaurgarrienen babeserako". SET sarean bildutako herritarrek pandemiaren testuinguruan irakurketa bateratua argitaratu dute bost eskaera nagusirekin:

- Ez erreskatatu sektore turistikoak zor publikoak areagotuz. Horren ordez, turismoaren desazkundeak proiektatu, ingurumena eta gizarte geruza zaurgarriak babesteko dituen ongizate politikak lehenetsiz.
- Gastu publikoak berrikusi, gizartearen oinarritzko beharrezkoak bideratuz (ospitaleak, etxebizitza publiko eta soziala, ikastetxeak...), azpiegitura eta proiektu erraldoi kaltegarri eta garestiak finantzatu ordez (portu eta aireportuen handitzea adibidez).

- Herritarrak higiezinaren espekulazioaren ondorioetatik babestu, etxebizitza turistikoaren kopurua zeharo murriztuz eta hauek alokairuaren merkatura itzularaziz. Honekin batera, zirkuitu ekonomiko globalek lurraldeak, hiriak eta auzoak bereganatzea eragozteko neurri zehatzak hartu.
- Turismoaren gastuak sektoreak barne-hartu dituzten eta etekinak gizartearen birbanatu daitezkeen neurriak indarrean jarri.
- Kulturaren garapenarekin eta ingurumenarekin koherenteak diren lanpostu duinak bermatzeko, beste sektore produktiboak (zaharrak eta berriak) sustatzeko politikak abiatu.

Agerikoa da proposamen hauek zuzenean egiten dutela talka gaur egun botere-guneetatik bultzatzen den turismo ereduarekin. Helburuak erdiestea zail izango dutela jakitun, herriz herri kanpainak prestatzen ari dira.

ERRESKATEA NORENTZAT ETA ZEIN ONDORIOREKIN?

2008an bankuak erreskatatu eta ondoren gobernuak sektore publikoetan murrizketak egin zituzten bezala, oraingoan turismoaren industriari laguntzak iragarritakoak, aurreko urteetan milioiak irabazi zituzten multinazionalak diru publikoak erregulatutakoak beldur da asko, hementik urte batzuetara larrialdi soziala areagotuz.

Maiatzaren 16an Pedro Sanchez Espainiako presidentek diru-laguntzen atal oso bat iragarri zuen turismoari zuzenduta. Espainiako BPGaren %12,3 tu-

rismoak ordezkatzen duela, sektoreak 2,6 milioi lagun lana ematen diela eta Estatura 80 milioi bisitari joaten direla adierazi zuen. "Espainiak turismoa behar du, baina turismoak segurtasuna eta osasun bermeak behar ditu. Arinegi joango bagina, hamarkada luzez erai-ki dugun izen ona arriskuan jarriko genuke". Estatura sartzen diren pertsonen berrogeialdia jartzea proposatu zuen. Sektoreko patronalean eta Europar Batasunean hazkura eragin zuen, eta arintzeko prest agertu zen. "Irtenbide komuna bilatu behar dugu ziurtatzeko gure herrialdeak gozatzera etorriko diren atzerriko turistek ez dakartela inolako kutsadurarik", esan zuen Sanchezek.

"Administrazioek onartuz gero, erreskate lotsagarri eta alferrikakoan, industria turistikoak bereganatuko lituzke langileen formaziorako eta dibertsifikazio ekonomikorako behar luketen fondo publikoak", diote Bartzelonako Desazkunde Turistikoaren Aldeko Auzoen Asanbladatik, nazioarteko erreferentzia turistikoazio prozesuen aurkako eragileetan.

Erreskatea eskatzen ari diren erraldoiak, adibidez, mundu osoko hegazkin konpainiak dira. Frantziako gobernuak Air France-LKM eta Alemaniakoak Lufthansari maileguak eman dizkieten bezala, Espainiakoa Iberia erreskatatzeko prestatzen ari da.

Frantziako Estatuak 7.000 milioi eman dizkio Air France-ri. "Gure konpainia nazionala salbatu beharra dago", esan zuen Ekonomia Ministro Bruno Le Mairek, plana "historikotzat" deskribatuz. Frantziako Estatuak Air France-ko akzioen %14 dauka, beste zati bat Herbeheree-



MARK SCHIEFELBEIN



DANI BLANCO

takoak, eta gainerakoa kapital pribatua da. "Aire garraioa gakoa da turismoarentzat", adierazi du Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo ministro Reyes Marotok, "eta hegazkin konpainiek beren bideragarritasuna bermatze aldera babesa jaso behar lukete".

Iberia LAE eta British Airways konpainien baturatik sortutako IAG Iberia multinazionala erreskatatzeak nazioarteko kapital pribatuak lagunduko lituzkeela salatzen duten ahotsak ere altza dira, "ez lukete babes sozialeko sistema erreskatatuko eta ez lituzke oinarritzko sektoreak bultzako energia eta klima krisi testuinguru honetan".

ARRETA JARTZEKO ELEMENTUAK

Inor ez da gai aurreikusteko zer gertatuko den hurrengo sei hilabeteetan, ea COVID-19ren eraso berria (noiz) gertatuko den, zein izango diren osasun neurriak, eta bidaiatzeko debekuak nola altxako diren, beraz, zaila da mundu mailako turismoaz espekulatzeko, salbu eta agerikoa dela gobernuak sektorea erreskatatzeko asmoa dutela.

Denbora aurrera doa, dagoeneko bi hilabete pasa dira herritarrek konfinatzeko agindu zutenetik, eta lekuan lekuko agentariak herritarren bizitzetan zuzenean eragingo duten erabaki politikoak hartzen ari dira norabide batean edo

bestean. Ez da harrizkoa izango, beraz, zenbait elementuk zentralitatea hartzea politikaren soka-tiran. Kalea harreman komunitarioetarako funtsezkoa dela eztabaida ezina da eta orain bi metroko distantzia sozialaren harira, egoera berriak sortzen ari dira, batean eta bestean espazio publikoaren erabilaren inguruan: terrazen araudi berriak, bizikleta eta oinezkoentzat lekua autoei kentzeko eskakerak, edo munduko leku askotan dagoeneko ikusgai dagoen moduan, hondartzak pribatizatzeak arriskua.

Ez litzateke harrizkoa turista gehiago erakartzeko azpiegituren handitzeek gatazka sozialak areagotzea, izan aireportu, tren, bus edo gurutzatzeentzat geltokiak. Hazkundera kolpetik moztu bada, azpiegitura hauek handitu nahi dituzten agentariak zailtasunak izan ditzakete halako diru kopuruak bestelako behar sozialek beharrezko obra hauetara zergatik bideratu nahi dituzten justifikatzeko.

Aurreko krisi ekonomikoari tokian toki zein irtenbide eman zitzaion erreparatzea ere garrantzitsua da. Europa hegoaldea berraktibatzeak turismoa eta etxebizitzaren eraikuntza bultzatzea proposatzen ari diren "guruak" ez dira gutxi. Horietako bat da munduko pertsona aberatsenetako bat den Santander bankuaren jabe Ana Botín. Bera akziodun

den *El País* egunkarian elkarrizketatu dute eta beste gauza ugariaren artean aldarrikatu du erakunde publikoek enpresa pribatuekin batera 150.000 etxebizitza eraikitzea bultzatzea behar luketela Espainiako Estatuan, "horrela 500.000 lanpostu sortzeko eta gazteei gurasoen etxetik independizatzen laguntzeko". Konfinamenduak hasi direnetik, Espainiako Estatuak zenbait autonomia erki-degok ingurugiroa babesteko neurriak indargabetu dituzte udalek etxebizitzaren eraikuntza errazago susta dezaten. Etxebizitzaren burbuila berrien bidea hautatuko al dute herrialdeok?

Erreskate turistikoak ere emango du zeresanik. 500.000 milioi euroko mailegua prestatu dute Europar Batasunean. "Ministroen txalo artean amaitu dugu bileran", jakinarazi zuen Twitterren Eurotaldeko presidentek. Hala ere, ez da ahaztu behar hau ez dela modu altruistan oinarritzen den dirua, bueltan eta interesekin itzuli behar den kapitala baizik -galdetu bestela kanpo zorrak itota eta inola ere barkatzen ez dieten mundu osoko herrialde txiroei-, eta beraz, orain pandemiaren beroan aurreko urteetan dirutzak irabazi eta banatu dituzten multinazionalak eskua luzatuta daudela, enpresei egiten zaizkien likidezia laguntza guztiak gerora itzuli beharko dituela estatuak, beltzez jantzitako gizonen



edo Troikaren begiradapean –eta beraz, osasunean, hezkuntzan, pentsioetan edo beste sektore publikoetan murrizketak egitera behartuz gobernuak–.

BIRUSAK BILUZTU GAITU

Donostiako tabernek pintxoak kristal batez estali beharko dituzte aurrerantzean. Horixe izan zen Donostiako Udalak COVID-19 pandemiari aurre egiteko hartu zuen lehen erabakia martxoaren 9an. Anekdotikoa lirudikeen arren, oso sinbolikoa da: Donostiarentzat pintxoak dira Parisentzat Eiffel dorrea dena. Erabakiak ez luke arazorik, ez balitz handik zortzi egunera, dagoeneko Madrildik aginduta herritarrek konfinatua, Gipuzkoako hiriburuak oraindik ez zuela etxerik gabeko 200 herritarrentzat alternatibarik. “Ez digu inork esan zer egin behar dugun, non egon ez badaukagu. Hau putakeria da, denak beren etxeetan daude eta ez dakigu zer egingo dugun guk”, zabaldu zuten mezua hirian etxerik gabeko gazte etorkinak biltzen dituen Modahara elkarteak martxoaren 14an. Hiru egun beranduago, kaleak hutsik zirela, Whatsapp bidez zabaldu zen ondorengo mezua: “Premiaz behar ditugu bost bat pertsona Donostiako Udalak etxerik gabeko jendearentzat irekiko dituen aterpetxeetan lan egiteko, 20 egun eta hila-bete artean. Ezagutzen duzu norbait?”.

“Oso erraza izango da marka berreskuratzea eta kanpainak egingo ditugu. Lehenik barne turismoa berreskuratuko dugu eta ondoren nazioartekoa”, adierazi du Eusko Jaurlaritzako Turismo, Komerzio eta Kontsumo kontseilari Sonia Pérezek. Koronabirusak Espainiako Estatuan izan duen eraginak Euskadiko turismo sektoreari nola eragingo dion galdetuta, esan du pandemia mundu mailakoa eta koiunturala dela, pasako dela eta EAERI erreferentzia egiteko *Basque Country* marka “bere onera” etorriko dela, baita Espainiako turismoa eta Euskadikoa ere, aurretik hazkunde tasa “oso onak” zituela.

Ez dakigu Perez kontseilariak bere iragarpenarekin asmatuko ote duen, *shock* ekonomikoaren ostean familia askoren diru-sarrerak konprometituta baitaude eta bidaiatzeko gogoak zenbaterainokoak izango diren ikuskizun baitago. Maiatz erdialdean publikatu den inkesta batean diote, adibidez, Espainiako Estatuak herritarren erdiak erabaki duela ez bidaiatzea aurtun.

Sektore konplexua da turismoarena, bateko eta besteko mila interes zopa berean nahasten dituen, eta gaur egungo gizarte ereduaren sinbolo eztabaidaezin bilakaturik. Bestelako gizarte baten alde lanean ari direnek, eztabaida zabaldu nahi dute, egoeraren larriak arrazoiak ematen dielakoan. Zaila dirudi agintari zenbaitek hanka azeleragailutik altxatzea ordea, azken urteetan bultzatzen duten eredu zalantzatan jartzea ekar lezakeelako horrek, eta gaur egungo politikan ez da oso ohikoa inork akatsak aitortu eta atzera egitea. Aldi berean, pandemia honek mahai gainean jarri du gizakion zaurgarritasuna, eta ingurugiroa zaintzeko neurriak aragotu beharrean, ekonomiaren izenean laxatzeak larrialdi klimatikoa areagotu besterik ez du egingo.

“Izurdeak Sardiniara itzuli dira. Veneziako ura, airea bezala, garbitzen ari da. Bartzelonako Boqueria merkatu turistifikatua, berriz ere, auzo-merkatu bihurtu da. Hotelak ireki dituzte Parisen arloak hartzeko. Eta Bartzelonako Zona Franca eremuko CIE Atzeritarren Atxikitze Zentroa itxi dute. Eta etxegabetzeak gelditu egin dira. Eta jada ez da udaberria El Corte Inglesen. Negozio pribatua, dekretuz, publiko unibertsalaren zerbitzura jarri da”, zioen David Fernandezek *Pascalen dilemma* artikuluan dotorean. Ikusiko da munduak zein norabide hartzen duen. Krisi honek behintzat erakutsi du ezinezkoak ziruditen gauza askoren atzean, erabaki

politikoak hartzeko borondatea besterik ez zegoela. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak #EzDuguAhaztuko kanpaina abiatu du, ziurrenik, imajinatzen dutelako agintariek “ahaztu” nahi izango dituztela bi hilabeteotan herritarrek bere begiekin ikusitakoak.

Hazi, hazi eta hazi doktrina politikoa- rekin jarraituko al du munduak? Norabide aldaketa eskatzen dutenek lortuko al dute alternatiba hezur-mamitza? Birtartean, globalizazioak pandemia eta antzeko izurriteen forman geroz eta astindu gehiago eragingo dituela diote ahots kualifikatuak ugarik.

Erreportaje honen hasieran Pedro Bravo idazleak zioen bezala, oraingoan birusa izan da, bihar sumendia izan daiteke, eta hor dago beti klima aldaketa. Turismoaren sektoreak asmatuko al du bere burua berrasmutzen, ala UNWTO-k nahi bezala, lehengo kopurueta itzuliko dira nazioarteko hegaldiak? Erreportaje hau idazten ari garen unean argitaratu ditu NASAK klimari buruzko azken datuak: 2020koa izan da historiako apirilik beroena, bataz bestekoa baino 1,15°C beroagoa; eta diotenez, 2020a historiako urterik beroena izan daiteke. Akaboa bidaia kapritxosoak? ●

INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com